

PRESIDENTEA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko AZAROAREN 23an  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Josu Artetxe  
Lauren Uria  
Ester Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi-etorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko urriaren 19an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.**

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

**2.- Berrestea 2017/11/20ko 532/17 Alkatetza Dekretua, Maderas Zerrabe SL enpresak 2017/07/31ko 363/17 Alkatetza Dekretuaren aurka (horren bidez zati batean onetsi zen maiatzaren 26ko 233/17 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa) jarritako 1036/2017-B zenbakiko (ohiko prozedura) administrazioaren aurkako auzi-helegitean demandatu gisa aurkezteari dagokiona.**

Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea zer den zati batean balioetsi dena.

Idazkariak azaldu du idazki bat egin zutela alegazio askorekin, eta horietatik batzuk soilik onetsi zirela. Horietako bat izan zen udal-arkitektoaren abstentzioari buruzkoa; izan ere, berriki, bera izan zen prozesu hori guztia salatu zuenaren arkitektoa. Eta, egia denez, zuzentzat hartu zen. Era berean, beste alegazio bat balioetsi zen, lurraren kutsadurari buruzkoa; izan ere zegoen azterketa ez zen egin.

Josu jaunak (BILDU) gehitu du nolabait frogatu dela, bateragarritasun ezari buruzko alegazio hori balioetsi behar izan denez, udal-arkitektoaren kontratazioa ez dela oso erregularra izan, hainbat interes pertsonal tarteko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio ez dela irregulartasunik egon arkitektoaren kontratazioan. Balioestea erabaki zen espediente garbia izan zedin; beste udal-teknikariari igorri zitzaion eta berak eman zion horren berri.

Horren inguruan ez denez ezer esan, korporazioko kide guztiek aho batez onetsi dute dekretua.

### 3. Azaroaren 25eko erakunde-adierazpena.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du adierazpenaren zirriborro bat igorri dela, batzordean proposatu ziren puntuekin. Eta korporazio osoari eta herritar guztiei gonbita egin zaie antolatu diren jardueretan parte har dezaten; bereziki, kontzentrazioan eta 26ko manifestazioan.

Nerea andreak (BILDU) honako hau esan du:

*“Onetsi dugun mozioa hiru indarren adostasunetik sortutakoa da, eta, hortaz, emakumeek aurre egiten dieten indarkeriaren alderdi desberdinak islatzen dituzten balioak biltzen ditu. Zentzu horretan, EH Bildu taldeak bere adierazpena zuen arren, gobernu-taldeak aurkeztutako mozioaren aurka egin ordez, hausnarketa hori osatuko zuten zati batzuk gehitzeko proposamena egin genuen, egunerokotasunaren parte direlako nabarmendu egin nahi baititugu. Adibidez, salaketa jartzen duten emakumeak zalantzak jartzeak eta erasoen errua emakume horiei botatzeak dakarren komunikabide eta gizarteko indarkeriari buruz eginikoa; era berean, egun hauetan agertzen ari den kasua, "La Manadaren" aurkako epaiketa, alegia, gogorarazi nahi genuen, eta argi utzi nahi dugu salaketa faltsuak zenbateko osoaren % 0,001 direla, hau da, ia ez dago bat ere ez.*

*Gehitzea proposatu zen beste gauza bat da komunikabideetan, musikan, iragarkietan eta beste esparru batzuetan sortzen den indarkeria sinbolikoa eta indarkeria ekonomikoa (soldata baxuagoak, lan-baldintza prekarioagoak...).*

*Hori, azalpenari dagokionez, eta hartu beharreko konpromisoei dagokienez, berriz, proposatu genuen Berdintasun Arloa hornitzea beharrezko baliabideekin, Emakunderi eta Aldundiari aurrekontu-partidak handitu ditzaten eskatzea eta gure konpromisoa erakustea borroka feministarekin.*

*Amaitzeko, indarkeria matxistaren erruz hil diren emakumeen izenak gogorarazi nahi ditugu, izen eta abizenekin, ahaztu ez daitezen eta soilik estatistika bat izan ez daitezen. Hori dela eta, hauek gogoratu nahi ditugu:*

*Elvira López, Portugaleten eraila.*

*Blanca Marqués, Burlatan eraila.*

*Raquel López (Eibar) eta 11 urteko semea, Alcobendasen erailak.*

*Sofia Tato (Villabona), Caceresen eraila.*

*Mélodie Massé, zortzi hilabeteko haurduna, Uztaritzen eraila.*

*Noelia Noemí, Sestaon eraila.*

*Ana Belén Jiménez (Lantaron), Miranda de Ebron eraila.*

*Eta, azkenik, hildako kasu bat ez den arren, baina oso gogorra delako, Sara Majarenas (espetxean) eta hiru urteko alaba Izar gogoratu nahi ditugu, aita bera hiltzen saiatu baitzen”.*

Susana andreak (EAJ-PNV) dio elkarretaratzean adierazpena irakurriko dela eta emakume eta alaben izenak ikusaraziko direla, indarkeriaren biktima direlako edo izan direlako.

Elkarretaratzea Arespalditzako azoka-eremuan egingo da, gehiago ikusten den eremu bat delako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

## “AZAROAREN 25eko ERAKUNDE-ADIERAZPENA”

### “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

#### *Begirada berria emakumeen aurkako indarkeriari*

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da **erreparazio-eskubidea** emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da **ahotsa eta protagonismoa ematea**, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.

Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak **sistematikoki aztertuz.**

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, Aiarako Udalean, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten
- Gure konpromisoa **udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko** edo, hala badagokio, **abian jartzeko**, indarkeria matxistari aurre egitea xede, **emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** oro har. Hala, 2018ari begira, Aiarako Kuadrillako indarkeria matxistaren aurkako Plan Osoa landuko da eta Kuadrillan hasi zen indarkeria matxistaren egoerari buruzko diagnosiari jarraipena emango zaio.
- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, **beharrezkoak diren baliabideak** eskura izan daitezen, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

- Gure konpromisoa LAIA Eskolaren aldeko apustuarekin jarraitzeko, Arabako berdintasunerako eta emakumeak ahalduentzeko eskola. Izan ere, tresna oso baliagarria da udalerriko indarkeria matxistari aurre egiteko, kontzientziazioetik, formazioetik eta estrategien koordinazioetik.

Azkenik, herritarrei Aiaran antolatutako ekitaldietan parte hartzeko gonbita egin nahi diegu, indarkeria matxistaren aurka eta berdintasunaren alde. "

#### **4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzazko Fundazioaren artean eginiko lankidetzaz-hitzarmena, Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2017. urtean kudeatzeko.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du Alday Ongintzazko Fundazioak hitzarmena aztertu duela eta proposatutako aldaketekin ados dagoela.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzazko Fundazioaren artean eginiko lankidetzaz-hitzarmena, hain zuzen ere, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2017. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

**IKUSI DA.-** Soziosanitarioa, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2017ko azaroaren 14an emaniko aldeko txostena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzazko Fundazioaren artean eginiko lankidetzaz-hitzarmena, hain zuzen ere, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2017. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

**Bigarrena.-** Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea Alday Ongintzazko Fundazioari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

#### **5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako IGEren arteko lankidetzaz-hitzarmena.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Etxaurren IGE deituriko Elkarteak gizarte- eta kirol-arloko eginkizun garrantzitsua gauzatzen ari da, udalerrian kultura eta kirol jarduerak asko sortzen baitu, eta, zehazki, haurren artean. Arte- eta kirol-jarduerak sustatzen ditu haurren artean, ikastetxeko ohiko jardueretatik kanpo.

**IKUSI DA.-** Udalak interes berezia du eskolaz kanpoko ordutegian jarduerak egiteari eusteko eta sustatzeko, hau da, eskolaz kanpoko jarduerak deiturikoak.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2017-2018 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko azaroaren 14an igorritako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren ikastolako ikasleen gurasoen elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, eskolaz kanpoko jarduerari dagokien diru-laguntza ordaintzeko.

**Bigarrena.-** Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea Etxaurren ikastolako IGERi, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

**6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Salvagoro Kultur Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, “Los últimos pastores de Sierra Salvada” proiektu dokumentala sustatzeko.**

Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea nola dagoen dokumentalaren euskarazko itzulpena.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du euskarara itzultzea aurreikusita dagoela, Aiaraldeak egingo duela.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** SALVAGORO Kultur Elkarteak dibulgazioko ikerketa garrantzitsu bat egiten duela, kultur, etnografia, historia eta naturari buruzko ondarearen defentsan, Salvada mendizerran eta haren inguruan.

**IKUSI DA.-** Udalak interesa duela jarduera hori babesteko eta, bereziki, "Los últimos pastores de Sierra Salvada" proiektu dokumentalaren garapena.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Salvagoro Kultur Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, “Los últimos pastores de Sierra Salvada” proiektu dokumentala sustatzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2017ko azaroaren 14an igorritako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Salvagoro Kultur Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, “Los últimos pastores de Sierra Salvada” proiektu dokumentala sustatzeko.

**Bigarrena.-** Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea Salvagoro Kultur Elkarteari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

**7.- “Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obra sartzea leader eremuko landa-udalerrien dibertsifikazio ekonomikorako, garapenerako eta sustapenerako diru-laguntzen eskaeran. Euskadiko 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren (lehen Erein deiturikoa) barruan onetsitakoa. Era berean, hori exekutatzeko konpromisoa hartzea.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du jarduketa hori egingo dela Padura kaleko bizilagunek eskatu dutelako; izan ere, bertan, aparkatzeko arazo asko daude.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du diru-laguntza eskatzeko obrak baldin badaude, ezin dela aukera hori galdu.

Josu jaunak (BILDU) esan du bere taldea abstenitu egingo dela; ez daude diru-laguntza hori eskatzearen aurka, baina Udalari ingurune horri buruzko txostena eskatu diote.

Gentza jaunak esan du eskatutako informazioa bidaliko zaiela.

Inork ez du beste ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ-PNV + 2 AIARA BATUZ)

Abstentzioak: 4 (BILDU).

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2017ko urriaren 11ko agindua; horren bidez arautzen dira leader eremuko landa-udalerrien dibertsifikazio ekonomikorako, garapenerako eta sustapenerako diru-laguntzak. Euskadiko 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren (lehen Erein deiturikoa) barruan onetsi zen eta 2017ko azaroaren 2ko 209 zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

**IKUSI DA.-** Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2017ko azaroaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Eskatzea leader eremuko landa-udalerrien dibertsifikazio ekonomikorako, garapenerako eta sustapenerako programan sartzea honako obra hau, Euskadiko 2015-2020 Landa Garapenerako Programaren (lehen Erein deiturikoa) barruan onetsitakoa:

***- Luiaondoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko jarduketak.***

**Bigarrena.-** Udalak kontratazioa eta obra hori exekutatzeko konpromisoa hartu du. Era berean, bere gain hartuko ditu obren finantzaketa osoa eta dagozkion ordainsariak, aurrekontuaren eta jasotako diru-laguntzen kargura

**8.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak eginiko txostena, Diruzaintzako gerakinaren erabilerari buruzkoa.**

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2016ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin da 2018ko aurrekontua egin arte itxaron.

**IKUSI DA.-** Idazkari kontu-hartzaileak 2017ko azaroaren 20an eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna betetzeari buruzkoa, Diruzaintzako gerakinaren gastuak finantzatzeko, gastu orokorrak direla eta.

**AINTZAT HARTU DIRA.-** Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauan idatzitakoaren arabera.

Udalbatza osoa Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak eginiko txostenaren jakinaren ganean geratu da. Txostena Diruzaintzako gerakinaren erabilerari buruzkoa da eta 2017ko azaroaren 20an idatzi zen.

**9.- Onestea, bidezkoa bada, Kredituak aldatzeko 8/2017 zenbakiko Espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili behar da, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2016ko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin da 2018ko aurrekontua egin arte itxaron. Horretarako, aplikazio batzuk handituko eta berri batzuk sortuko dira.

**IKUSI DA.-** Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa, 17/2014 Foru Arauak aldatzen duena) ezarritakoari jarraituz. Txosten hori Udalbatzari helarazi zaio kreditu-aldaketa honekin batera.

**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Araba lurralde historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.**-Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarria:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA</b> (€)
----------------	--------------	--------------------------

134.601.008	OBRA: LUIAONDOKO PADURA KALEKO MUGIKORTASUNA HOBETZEKO JARDUKETAK.	188.096,77 €
-------------	--	--------------

GUZTIRA: 188.096,77 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

A. Handitu behar diren diru-sarrereren partidak edo erabiliko den diruzaintzako gerakina:

<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKOA (€)</u>
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	188.096,77 €
	<b>GUZTIRA.....</b>	188.096,77 €

Espedientea finantzatuko duten baliabide guztien batura (diruzaintzako gerakina, kaltetutako finantzaketa duten gastuetarako) 188.096,77 eurokoa da; handitu beharreko gastuen zenbatekoarekin bat dator.

**Bigarrena.-** Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta jendaurrean ikusgai jartzea 15 egun baliioduneko epean, interesatuek aztertu dezaten eta euren ustez egoki diren erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Erreklamazioen bat egongo balitz, erabaki berri bat hartu beharko da horiek onetsiz edo baztertuz.

**Laugarrena.-** Erabakia behin betikotzat jotzea arauzko moduan eta epean.

**10.- Honako hauen berri ematea: udal-zenbaketen aktak, gastuen eta sarrereren balantzea, libreten egoera eta 2017ko ekaineko, uztaileko, abuztuko eta iraileko kredituen aldaketak.**

Udalbatza jakitun geratu da.

**11.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **460/17 erref.: EDP Comercializadora SAU.-** 2017ko hirugarren hiruhilekoan gasa dela-eta lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **461/17 erref.: FJBC.-** Obrak gelditzeko agindua ematea eta administrazio-espedientea hasia, Betoio lursailean etxola bat eraikitzeako obrak exekutatzegatik.
- **462/17 erref.: Onestea F/2017/12 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **463/17 erref.: VRM.-** Obrarako hirigintza-lizentzia ematea, Llanteno etxebizitza batean hainbat jarduketa egiteko.
- **464/17 erref.: TEI.-** Fidantza itzultzea, Olabazarren dagoen lursail batean “tresnak eta ibilgailua gordetzeko etxola bat eraiki eta lurra eusteko horma konpontzeko” obren hondakinak kudeatzeagatik jarritakoa, eta lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea.



- **465/17 erref.: AUZ.-** Espedientea abiaraztea, Izoriako lursail bateko nekazaritzarako eta abeltzaintzarako etxola bat antolamendutik kanpo uzteko.
- **466/17 erref.: RMMI.-** Sailkatutako jarduera baten garapena onestea Salmantonen, haragitarako behien ustiapenerako.
- **467/17 erref.: FMA.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **468/17 erref.: AIARA BOLATOKI TALDEA.-** 2016ko diru-laguntzaren justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko eskatzea.
- **469/17 erref.: KIROLGEST SL.-** Kultur eta kirol arloko ikastaro eta tailerrak eskaintzeko zerbitzuaren kontratuaren bigarren aldaketa.
- **470/17 erref.: MNSN.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **471/17 erref.: SOL.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **472/17 erref.: JFV.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **473/17 erref.: LRL.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **474/17 erref.: JCCG.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2017) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **475/17 erref.: AIARAKO BILTOKIA KULTUR ELKARTEA.-** 2017ko diru-laguntza ematea, % 90a ordaintzeko agindua.
- **476/17 erref.: DORREKO PILOTA KLUBA.-** 2017ko diru-laguntza ematea, % 90a ordaintzeko agindua.
- **477/17 erref.: JRLE.-** Ibilgailuen gaineko udal-zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.
- **478/17 erref.: ELDER MEDIO AMBIENTE VITORIA SLL.-** Nekazaritzako plastikoak biltzeko zerbitzuaren kontratua bigarren aldiz aldatzea.
- **479/17 erref.: Maderas Zerrabe SL.-** Administrazio-espedientea abiaraztea, zerrategiaren industria-jarduera gelditu eta behin betiko ixteko.
- **480/17 erref.: IIA.-** Lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematea Murgako lursail batean eraiki den tresnak gordetzeko etxolari.
- **481/17 erref.: IIA.-** Tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzean sortutako hondakinak modu egokian kudeatzeko jarritako fidantza ez itzultzea.
- **482/17 erref.: RUH.-** Aparkatzeko txartela ematea.
- **483/17 erref.:** 2017ko Bono-taxi Programaren diru-laguntzen ebazpena onestea.
- **484/17 erref.: Amigos de Etxaurren Elkartea.-** Hitzarmenaren arabera 2017ko jardueretarako emandako diru-laguntza zuzentzeko agiriak eskatzea.
- **485/17 erref.: Hnos. A. G. CB.-** Lujoko lursail batean zaldiak eta haragitarako behiak ustiatzeko sailkatutako jarduera irekitzeko lizentzia ematea.
- **486/17. erref.:** Alkatetzaren 4/2017 kredituak gaitzeko espedientea.
- **487/17 erref.: I. B. V.-** Zerbitzuen kontratu txikia esleitzea, trikitixa- eta pandero-ikastaroak emateko.
- **488/17 erref.: MTSG.-** Agiri gehiago eskatzea okupazioari buruzko udal-lizentziaren espedientearekin lotuta.
- **489/17 erref.: ERML.-** Administrazio-espediente bat jendaurrean ikusgai jartzeko baimena ematea.
- **490/17 erref.: Zorroza Gestión SL.-** Subsidiarioki exekutatzeko espedientea abiaraztea, plano topografiko bat egiteko.

- **491/17 erref.: Goiener S. Coop** - Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2017ko 3. hiruhilekoa); kontzeptua: elektrizitatea.
- **492/17 erref.: Diru-laguntza ematea 2016an adingabeak udalerritik kanpo dantza eta musika ikastaroetara joateko.**
- **492/17 erref.: Construcciones Menoyo Gochi SL**- Obrarako kontratua esleitzea, Luiaondoko 3. poligonoko 1333 lursailean erabilera publikoko obren II. faseko jarduerak egiteko.
- **494/17 erref.: Viesgo Energía SL**.- 2017ko hirugarren hiruhilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **495/17 erref.: LLANTENOKO SANTIAGO APOSTOL ERRETIRATUEN ELKARTEA**.- 25. urteurrena ospatzeko diru-laguntza ematea.
- **496/17 erref.: IBAIZABAL GAZTETXEA ELKARTEA**.- 25. urteurrena ospatzeko diru-laguntza ematea.
- **497/17 erref.: Enplegu Eskaintza Publikoa onesten duen dekretua onartzea.**
- **498/17 erref.: BOA**.- Udal-baimena ematea, Zuazako 2. poligonoko 2246, 2285 eta 2286 katastro-lursailen artean etxebizitza pribatuak eraikitzeke.
- **499/17 erref.: SFDZP**.- Uko egitea udal-lizentziaren eskaerari, Menagaraiko lursailtako segregazio eta agregaziorako; izan ere, ez du dagokion dokumentazioa aurkeztu emandako epean.
- **500/17 erref.: Bizkaiko Barne Dekoratzailerak eta Diseinatzaileen Elkargo Ofiziala**.- Luiaondon "Fisioterapia eta osteopatia zentro bat" martxan jartzeko obra- eta jarduera-lizentziaren espedientean interesdun gisa aitortzea.
- **501/17 erref.: Iruñalan SL**.- Eskatutako informazio publikoa lortzeko baimena ematea.
- **502/17 erref.: DAA**.- 415/17 dekretuaren bitartez emandako segregazio-lizentziatik sortutako lursailen azalera egondako zenbakizko akatsak zuzendu dira.
- **503/17 erref.: FCB**.- Tresnak gordetzeko etxola bat eraikitzean sortutako hondakinak modu egokian kudeatzeko jarritako fidantza ez itzultzea.
- **504/17 erref.: Diru-laguntza ematea, Herri Urrats 2017 ekimenari.**
- **505/17 erref.: Diru-laguntza ematea Araba Euskaraz 2017 ekimenari.**
- **506/17 erref.: Diru-laguntza ematea Nafarroa Oinez 2017 ekimenari.**
- **507/17 erref.: Transformaciones Metálicas Ambar SL**.- Murgako "galdaragintza-tailerraren" jardueraren behin betiko amaiera onestea.
- **508/17 erref.: RVM**.- Maderas Zerrabe SL enpresaren administrazio-espedientearen berri ematea.
- **509/17 erref.: GSK**.- Jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **510/17 erref.: EHIGERi** diru-laguntza ematea, Euskal Eskola Publikoaren Jaialdia (2017) antolatzeke.
- **511/17 erref.: Diru-laguntza ematea, AEK-Korrika 2017 ekimenari.**
- **512/17 erref.: Arabako Foru Aldundia**.- Aiarako abere-bideei buruz eskatutako udal-artxibategiko informazio publikorako sarbidea ematea.
- **513/17 erref.: AVM**.- Heriotza-ziurtagiria emateko atzerapena dela-eta eskatutako ondare-erantzukizunaren kalte-ordaina ez ematea.
- **514/17 erref.: Zorroza Gestión SL**.- Subsidiarioki exekutatzeko espedientea gelditzeko eskaera baztertzea.
- **515/17 erref.: Emaus Bilbao SCIS**.- Jarduera aldatzeko lizentziaren eskaerari uko egin diola ulertuko da, ez duelako dagokion dokumentazioa aurkeztu horretarako emandako epean.
- **516/17 erref.: Emaus Bilbao SCIS**.- 535/17 Alkatetza Dekretuaren bitartez emandako obrarako lizentzia irautzeko administrazio-espedientea abiaraztea.
- **517/17 erref.: Onestea F/2017/13** zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **518/17 erref.: Maderas Zerrabe SL**.- Eskatutako jarduera-lizentzia ez ematea, hirigintza-plangintzaren bateraezintasunean oinarritako udal-eskumenak direla eta.

- **519/17 erref.: Luiaondoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko eraikinean lokala eta bainugelak egokitzeko, Gaztegunerako erabilerrako.
- **520/17 erref.: FJBC.-** Nahasitako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea ebatzea, dagokion udal-lizentziarik gabe etxola bat eraikitzeagatik.
- **521/17 erref.: Zorroza Gestión SL.-** Luzatu ezin litekeen epea ematea topografia-azterketa aurkezteko (abiarazitako zehapen-espedientea).
- **522/17 erref.: Autocares Sobrón SL.-** Etxaurren Ikastolan 2017-2018 ikasturterako garraio-zerbitzua egiteko baimena ematea.
- **523/17 erref.: Salmantongo Administrazio Batza.-** "Salmantongo arazketa sistema aldatzeko" obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaio.
- **524/17 erref.: MTSG.-** Llantenoako baserri bateko barrualdea konpontzeko okupazio-lizentzia ematea, obrak amaitu ostean.
- **525/17 erref.: OGC.-** Udal-lizentzia ematea Luiaondoko lokal bat birgaitzeko obretarako; bertan, "fisioterapia eta osteopatia zentro" bat jarriko da.
- **526/17 erref.: OGC.-** Jardueraren alde aurreko jakinarazpena, Luiaondoko fisioterapia eta osteopatia zentroa jartzeko.
- **527/17 erref.: ILB.-** Sei hilabetez luzatzea epea, Llantenoako landa-etxea konpondu eta egokitzeko obrak abiarazteko.
- **528/17 erref.: MICF.-** Agiri gehiago eskatzea, obrak hasteko udal-lizentziaren espedienteari buruz (Arespalditza).

Iraida andreak (Aiara Batuz) 513/17 Dekretuagatik galdetu du, bitxia iruditzen zaielako.

Idazkariak azaldu du A. oporretan egon denean, eta bake-epaitegiko idazkaritzan egon diren aldaketa guztiak tarteko, hogeita bat egun behar izan zirela eskatzaileari heriotzaren ziurtagiria emateko; izan ere, telematikoki eskatu zuen, ez ziren aplikazioan sartu eta ez zitzaion eman. Dena den, alarguntasun-prestazioa eskatzeko hiru hilabeteko epea dago, eta ziurtagiria eman zitzaionean oraindik bi hilabete geratzen zitzaizkion eskatu ahal izateko. Gizarte Segurantzak prestazio hori ematen duenean atzeraeraginezko izaerarekin egiten du. Hortaz, hil den egun beretik ordainduko zaio eta ez du pentsioa galduko. Horregatik baztertu dugu bere eskaera.

Lauren jaunak (BILDU) Bake Epaitegiko idazkaritzaren egoeratik galdetu du, ea egonkor den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio tramiteekin atzerapenak daudela; izan ere, pertsona hori soilik asteen behin etortzen da, ordu batzuetarako, eta gauzak poliki-poliki egiten ari dira. Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin dugu Bake Epaitegietako idazkarien taldeari dagokionez, eta irailean Madriletik oniritzia jaso genuen. Eusko Jaurlaritzak lanpostuen zerrenda aldatu du eta, hasteko, bi pertsona egongo dira eta horiek bost udaletatik pasako dira.

Nerea andreak (BILDU) azaldu du beste Epaitegi batzuetan kexak jarri direla Aiara Bake Epaitegiari buruz; arazoa konpontzen saiatu behar gara.

Gentza jaunak erantzun dio horretan ari direla. Egoera Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zaio, A., eta etortzen denean Epaitegiko idazkaria berarekin egoten da izapide guztiekin laguntzeko.

Josu jaunak (BILDU) 478/17 dekretuagatik galdetu du, zein den aipatzen den aldaketa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du zerbitzuan ustiapen gehiago jarri direla.

Josu jaunak (BILDU) 519/17 dekretuagatik galdetu du; izan ere, batzordean ez da ezer eztabaidatu Gazteguneri buruz eta jada obrarako lizentzia eman zaio Administrazio Batzari.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak ezin diola esan Administrazio Batzari zein obra egin ditzakeen eta zein ez. Horma bat bota da eta komun bat egokitu da. Lokal ireki bat geratu da eta instalazio batzuk aurreikusi dira, lokalean edozein jarduera jarri ahal izateko. Ondoren, altzariak erosi beharko dira. Enpresa batekin hitz egin dugu gizarte eta hezkuntzari buruzko proiektu bat aurkeztu dezan; ikusiko dugu nola geratzen den. Administrazio Batzak, gehitu du Gentza jaunak, ikusi du bizilagunek interesa dutela eta soilik lizentzia bat eskatu du lokal bat egokitzeko.

Nerea andreak (BILDU) esan du dekretuan zehazten den bezala, badirudiela lizentzia Gazteguneri eman zaiola eta, hasiera batean, ez da Batzak bere gain hartuko duen zerbitzu bat. Gehitu du, urte bat baino gehiago daramatela gai horrekin eta ez direla familiekin bildu; badirudi gobernu-taldea gauzak aurreratzen ari dela eta oposizioak eta familiok ez daukagu berririk, ez dakigu zerbitzu hori nola kudeatuko den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Luiaondoko Administrazio Batzak obra txikiatarako deialdi bat aurkeztu duela eta egokitu duen lokal horren erabilera definitu behar izan duela diru-laguntza eskatzeko.

Nerea andreak (BILDU) esan du bere taldeak azaldu nahi duela ez dela eztabaidarik egon; ez dute zehaztu zer egingo den eta nola kudeatuko den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udala gizarteari eta hezkuntzari buruzko proiektu bat prestatzen ari dela gaztegunerako. Zirriborroa prest dagoenean, bidali egingo da batzordean aztertzeko, eta familiekin eztabaidatuko da. Baina, bitartean, Administrazio Batzak ez du diru-laguntzak eskatzeko aukera galduko, lokala egokitzeko.

Nerea andreak erantzun dio ez dagoela zalantzarik, gobernu-taldea proposamena lantzen ari dela; baina berak nahi du proposamen hori irekitzea, zein den zerbitzu hori ikusteko eta zein zerbitzu eskaini nahi den jakiteko. Baina ez dute horren berririk, eta esan du jada urte bat daramatela itxaroten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du batzordera eramango dela eta familiekin hitz egingo dela eta gustatzen ez bazaie, aldatu egingo dela ekarpenen arabera.

Nerea andreak (BILDU) gehitu du jada familiek egin dutela proposamen bat, horri buruz hitz egiten hasi zitekeela, eta eztabaidatu zer lortu nahi den Udalaren aldetik.

Josu jaunak (BILDU) esan du ez dela hain zaila. Familiekin parte hartzeko prozesu bat irekitzea besterik ez da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du proiektua familiek egindako eskaerekin landu dela.

Montse andreak (EAJ-PNV) gehitu du, orain arte ez zegoela lokalik martxan jartzeko; hortaz, gauzak azkar egin arren, ezingo zatekeela ezer egin, lokalik ez zutelako.

Nerea andreak (BILDU) azaldu du gobernu-taldearen konpromisoa izan zela familiekin aurtengo urtarrilean biltzea. Badakigu gauzek denbora behar dutela, eta pazientzia askorekin itxaron dugu; baina hilabeteak igaro dira, eta ez daukagu ezer mahai gainean.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio proiektua aurkeztu dela eta zehaztuko dela zer nahi duten.

Iratxe andreak (Aiara Batuz) zehaztu du egia dela, batzorde guztietan atera dela gai hau; azken konpromisoa izan da familiekin biltzea urtea amaitu baino lehen. Dena den, pentsatzen du Administrazio Batzak eskatu duela obra eta bere gain hartuko duela; izan ere, bazekiten Udala zerbitzu hori nola eman baloratzen ari zela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du, hasiera batean, lokal horretan Gaztegunea jarriko dela; baina Udalak, edozein arrazoiengatik, ez badu egiten, Administrazio Batzak erabakiko du nola kudeatu, dagoen eskariaren jakitun baitira.

## **12.- Galderak eta eskaerak.**

- Iratxe andreak (Aiara Batuz) galdetu du ea Sierrako lanak orain hasten diren.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio baietz, idazki bat igorri dela 4tik 20ra arte bidea itxita egongo dela esateko. Abereak oraindik bertan dituzten artzainekin bildu gara. Gutun bat igorriko zaie eta seinaleak jarriko dira.

- Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea zein den Udalaren jarrera, Kuadrillako artxibozainaren lanpostuari dagokionez. Positiboa iruditzen zaie Kuadrillako lanpostuen zerrendan sartzea, baina lanpostu horrekin zerikusia duten beste gauza batzuk eztabaidatzen ari dira.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du batzarreko zinegotzi bakoitzak izandako jarrera dela; izan ere, Kuadrillako bilkura batean eztabaidatu zen gaia eta uste du Laurenek, Iñigok eta berak egindako kudeaketaren alde bozkatu zutela. Uste du ez dela hausnartu behar Kuadrillako bilkuretan hartzen diren erabakiei buruz.

Josu jaunak esan du Kuadrillan zalantzan jartzen ari direla lanpostu horren funtzio eta eginbeharrak, eta langileak beste errekurso bat aurkeztu du. Langileak esan du teknikaritzat hartzen ez bada, hainbat lan ez dituela egingo. Gehitu du gaiari buruz hausnartzea eskatzen duela; izan ere, langilea izateaz gain, herriko bizilaguna da.

Gentza jaunak erantzun du berak ez dituela zalantzan jarri egiten diren lanak. Dena den, txostenean adierazi zen Laudion eta Amurriion badaudela lan horiek egiten dituzten langileak eta administrari-kategoria dutela.

Lauren jaunak (BILDU) esan du agian Amurrioko eta Laudioko langile horiek ere teknikariak izan behar zutela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du agian ezetz; alegazio horiek begiratu egin behar dira, eta adituek erabakiko dute zein kategoria profesional izan behar duten. Informatuko gara eta ikusiko dugu.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita hiruan.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.